**idazkaritza-kontuhartzailetza**

| | |
|---|---|
| 102026/05/28an EGINDAKO Ohiko Osoko bilkura. | SESIÓN Ordinaria DEL Pleno DE LA CORPORACIÓN. Día 28/05/2026. |

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Edorta Barandiaran García
Irati Iglesias Pozo
Mikel Luengo Gabarain
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Alaitz Orueta Arrese
Xabier Uriarte Iñurrategi
Maite Uribe Beristain
Puri Regidor Varela
Antonio Regaño Sajeras
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

Eskoriatzan, 2026ko maiatzaren 28an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzara, ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 28/05/2026, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

ESKU3103c782-cd37-49fd-9848-d4449767e901

## 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2026ko apirilaren 23an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

## 2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2026ko maiatzaren 16ra arte hartutako erabakien berri eman da.

Berariaz eman da 2026-KALD-000007 kreditu aldaketa espedientea onartzeko Alkate erabakiaren berri.

## 3.- UDAL ORTUAK ERABILTZEKO BAIMENA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUAREN ALDAKETA PUNTUALA HASIERA BATEAN ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** UDAL ORTUAK ERABILTZEKO BAIMENA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUAREN aldaketa puntuala hasiera batean onartzea.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau jendaurrean jartzea 30 egun baliodunekoepean, iragarkiak jarriz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal honetako iragarki-oholean eta webgunean, interesdunek erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak aurkez ditzaten. Erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik aurkezten ez bada, hasierako erabakia automatikoki behin betiko bihurtuko da.

**HIRUGARRENA.-** Alkate-Udalburuari ahalmena ematea hasierako erabakia behin betikotzat jo dezan erabaki bidez, erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada.

## 4.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZAK JARRITAKO ERAGOZPENAK (2026ko lehen hiruhilekoa).

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzailetzak legezkotasun hainbat ohar-eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko martxoaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

*1.- Faktura onartzea kiroldegiko plaka fotovoltaikoak jartzeko lanak amaitu gabe.*

*2.- Faktura onartzea musika eskolaren oinarrizko proiektua idazteko zerbitzua eman gabe.*

*3.- 1/2026 ERAGOZPENA, 140 euro ordaindu dira fakturarik gabe, hobariei buruzko informazio-eskuorria postontzietan banatzeko zerbitzuarengatik.*

ESKU3103c782-cd37-49fd-9848-d4449767e901

*4.- 2/2026 ERAGOZPENA, 63,35 euro ordaindu dira “zerbitzu eginaren” printzipioaren aurka, eta 140 euro faktura aurkeztu gabe.*

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 11 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**5.- 2026ko LEHEN HIRUHILEKOAREN FINANTZA ETA EKONOMIA ARLOKO INFORMAZIOA (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 64. artikulua).**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 64. artikuluan ezarritakoa betez, 2026ko lehen hiruhilekoari dagokion finantza- eta aurrekontu-informazioaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 11 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**6.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak hartutako obligazioak ordaintzeko epeak 2026ko lehenengo hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 11 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**7.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEKO PROPOSAMENA.**

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaratuta egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuengatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko tramitatutako espedientearen berri eman da.

Aurrez esandakoa kontuan hartuta, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** LEHENENGOA.- Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuengatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

ESKU3103c782-cd37-49fd-9848-d4449767e901

- **Preskripzioagatik** kobratzeke dauden eskubideen baja: 4.402,89 €.

| 26/01/01etik 26/03/31ra BITARTEAN AURREKONTUEI APLIKATUTAKO UDAL ZERGEN BAJAK | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| IFZ | KONTZEPTUA | URTEA | LIKIDAZIOA | KUOTA | ERREKARGOA | GUZTIRA | ZERGATIA |
| B43687375 | JARDUERA ENPR | 2021 | 31A0301322304 | 527,22 | 105,44 | 632,66 | 4G-BAJ.PRESCR.GEA |
| U95796090 | JARDUERA ENPR | 2021 | 31A044273130Y | 171,66 | 34,33 | 205,99 | 4G-BAJ.PRESCR.GEA |
| B75187377 | JARDUERA ENPR | 2021 | 31A048512230F | 211,02 | 42,2 | 253,22 | 4G-BAJ.PRESCR.GEA |
| B75097030 | JARDUERA ENPR | 2021 | 31A041940730D | 2759,19 | 551,83 | 3311,02 | 4G-BAJ.PRESCR.GEA |
| GUZTIRA | | | | 3.669,09 | 733,80 | 4.402,89 | |

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea kontuhartzailetza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiren batzuengatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaratutako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

## 8.- 2025eko KONTU OROKORRAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63. artikulua betez, Kontu Batzorde Bereziak 2025eko ekitaldiko kontuak eta kontabilitate-egoera aztertu zituen, hau da, honako hauek: Udalaren urteko kontuak eta kontabilitate-egoera; eta horrekin batera, horiek justifikatzeko dagozkion dokumentuak eta Udalaren aurrekontuaren kitapena.

Kontu Batzorde Bereziak aipatutako kontuak onartzearen aldeko diktamena eman zuen 2026ko apirilaren 16an egindako bilkuran.

2026ko apirilaren 22an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (123 zenbakia) argitaratutako iragarki bidez jendaurrean jarri ziren 15 egunez, eta epe horretan ez da inolako alegaziorik edo erreklamaziorik jarri.

Aurrez esandakoa kontuan izanik, eta Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, EAJ/PNVko lau zinegotziak abstenituta eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

"2026ko apirilaren 16an egindako Kontu Batzorde Berezian hasiera batean onartu ondoren, 2025eko ekitaldiko Udaleko kontu orokorren gaineko espedientea behin betiko onartzea, 2026ko apirilaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik jendaurrean egoteko ezarritako epea igaro baita hasiera batean onartutako espedientearen aurka inolako ohar edo erreklamaziorik egin gabe".

ESKU3103c782-cd37-49fd-9848-d4449767e901

**9. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA: 2026-KALD-000008 ESPEDIENTEA (kreditu gehigarriak).**

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkari-kontuhartzailetzak egindako txostena ikusita, bototara jarri da Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 2026-KALD-000008. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

| Gastuen partida | Azalpena | Kredituak | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Egungoak | Aldaketak | Behin betikoak |
| 1 0400.421.335.10.01 2026 | APORTAZIOA:LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA | 60.070,02 | 16.833,65 | 76.903,67 |
| 1 0100.601.454.00.03 2026 | INBERTSIOAK:ELIZATEAK | 10.000,00 | 20.000,00 | 30.000,00 |
| 1 0300.623.342.30.02 2026 | INSTALAZIOAK:IGERILEKUA | 0,00 | 4.455,00 | 4.455,00 |
| 1 0300.601.342.40.01 2026 | UR PARKEA | 0,00 | 20.000,00 | 20.000,00 |
| 1 0100.622.153.20.01 2026 | SANTA MARINA PLAZAREN ESTALKIA | 0,00 | 40.000,00 | 40.000,00 |
| 1 0400.625.333.00.99 2026 | BESTELAKO LANABESAK:KULTURA EKIPAMENDUAK | 0,00 | 45.000,00 | 45.000,00 |
| | | | | |
| **GUZTIRA** | | 70.070,02 | 146.288,65 | 216.358,67 |

| Kod. | Partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|

ESKU3103c782-cd37-49fd-9848-d4449767e901

| | | | |
|---|---|---|---|
| a | 2 0200.870.000.00.01 2026 | DIRUZAINTZAKO GERAKINA:GASTU OROKORRETAR | 146.288,65 |
| | | | |
| | | **FINANTZAKETA GUZTIRA** | **146.288,65** |

**KODEEN AZALPENA**

a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina.
c) Sarrera berri edo handiagoak.
d) Kredituak baliogabetzeagatik baja.
e) Kreditu eragiketak.

**Bigarrena.-** Erabaki horiek jendaurrean jartzea hamabost egunez, nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

ZINEGOTZIEK ESANDAKOAK:

Josu Ezkurdia: gu, printzipioz, proiektuekin ados gaude, baina beste urrats bat emateko proposamena egin genuen, ur-txorrotekin batera egungo igerilekuaren ordez ezaugarri hobeko beste bat jartzeko aukera aztertzea, alegia. Eta Santa Ana parkea estaltzeko proiektuari dagokionez, klima-aldaketa kontuan hartuta, neurri jakin batzuk aztertzea proposatzen dugu, hala nola klimatik babesteko neurriak edo beste batzuk. Ez dakit jarduera horiei ekiteko asmorik dagoen ala ez.

Mikel Luengok adierazi du klima aldaketari buruzko proiektu bateri heldu nahi zaiola eta asmoa dela EAJ/PNVko ordezkari bat gonbidatzea bileretan parte hartzera. Josu Ezkurdiak prestasun osoa adierazi du parte hartzeko eta ekarpenak egiteko.

Kanpoko igerileku berri bati ekiteko proposamenari dagokionez, alkateak eta Mikel Luengok jakinarazi dute eremu horretan egiten den edozein jarduketak, ur-txorrotena barne, aldez aurreko azterketa tekniko bat eskatzen duela, geotermia-sistema instalatzeko zulaketak egin baitziren bertan.

## 10.- ESKORIATZAKO EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA: "2026KO BAXOAREN AZTERKETAK EUSKARAZ PASATZEAREN ALDEKO SOSTENGU MOZIOA".

Udalbatzarrak, aho batez, ERABAKI DU ondoren transkribatzen den mozioa onartzea:

Ikusirik Hezkuntza Kodearen 121-3 artikulua, azterketa eta konkurtsoetan eskualdeko hizkuntzen lekua aitortzen duena,

ESKU3103c782-cd37-49fd-9848-d4449767e901

Ikusirik 2021eko abenduko zirkularra, hezkuntza sisteman « eskualdeetako hizkuntzen » sustapenari eta balorazioari buruzkoa, non aurreikusia den « Baxoan azterketak eskualde hizkuntzan aurkezten ahal » direla,

Kontuan hartuz, 2012tik euskarazko irakaskuntza segitzen zuten ikasleek, 2019ko erreforma arte, Baxoaren azterketa batzuk euskaraz pasatu zitzaketela, zehazki matematika eta historia- geografia,

Kontuan hartuz 2025eko ekainean argitaratu den ministeritzaren erabakiak, matematika azterketa aitzinatuko ibilmoldeari buruz, ez duela zehazten zein hizkuntzatan erantzun behar den, eta ondorioz orain arteko praktika bermatzen duela,

Kontuan hartuz hunkituak diren ikasleak, 2025-2026 ikasturtearen hastapenetik, azterketa hori euskaraz egiteko prestatu direla, aitzineko urteen jarraipenean, eta orain arte ez zaiela kontrakotasunik jakinarazi,

Kontuan hartuz prestakuntza hori Hezkuntzaren zerbitzu publikoaren konfiantza eta jarraipen printzipio batean oinarritzen dela,

Kontuan hartuz 2026ko ekaineko matematika azterketa aitzinatua euskaraz pasatzeko debeku baten iragartze berantiarra haustura bortitza eta arrazoirik gabekoa dela,

Kontuan hartuz erabaki horrek ehun ikasle baino gehiago zailtasunean ezartzen dituela eta segurtasunik gabeko egoera pedagogiko bat sortzen duela eta gazte hauen etorkizunerako ondorioak dituela,

Kontuan hartuz Frantziako Hezkuntza ministroak Baxoan hizkuntza minorizatuen lekua bermatzeko 2027rako neurriak hitzeman dituela, eta 2026ko azterketa aitzinatua egutegi horretan sartzen dela,

Kontuan hartuz 2012 urtetik abiatua zen matematiketako esperimentazioa segitzea aterabide erraza, pragmatikoa eta errespetuzkoa litzateke ikasleentzat eta Estatuaren engaiamenduaren adierazgarri,

Kontuan hartuz azterketak euskaraz aurkezteko hiru sareek (publikoak, pribatuak eta Seaskak) sustengatzen duten eskaera dela, eta eskaera hori aho batez sustengatua dela Ipar Euskal Herriko parlamentari eta ordezkari instituzionalen aldetik,

Eskoriatzako Udalak:

1. Sustengu osoa adierazten die euskarazko irakaskuntzan sare ezberdinetan ari diren ikasle, familia eta hezkuntza taldeei,
2. Galdegiten dio Bordeleko akademiako errektoreari, behin behinean, euskaraz pasatzeko aukera atxikitzea, 2012tik indarrean den esperimentazioaren jarraipen gisa, Matematika azterketa aitzinatua Lehen mailako ikasleentzat;
3. Dei egiten dio Frantziako Hezkuntza ministroari, 2026ko ekaineko azterketetan « eskualdeko hizkuntzen » egiazko konsiderazioa berma dezan, luzamendurik gabe, bereziki matematikako aurreratu azterketan, Lehen mailako ikasleentzat eta Ahozko

ESKU3103c782-cd37-49fd-9848-d4449767e901

Proba Handian, Terminaleko ikasleentzat;

4. Oroitarazten du hizkuntza gutiagotuen aldeko diskurtsoak ekintza zehatz eta koherenteetan islatu behar direla;

5. Goraki aldarrikatzen du Euskararekiko atxikimendua, gure lurraldeko ondare bizia baita.

## 11.- GALDE-ESKEAK.

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:14ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

ESKU3103c782-cd37-49fd-9848-d4449767e901

## 1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 23 de abril de 2026.

## 2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA

Se da traslado de las resoluciones dictadas hasta el día 16-05-2026.

De forma expresa se da cuenta de la resolución por la que se aprueba el expediente de modificación de créditos Nº 2026-KALD-000007

## 3.- PROPUESTA DE APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL REGLAMENTO REGULADOR DE LA AUTORIZACIÓN DE USO DE HUERTAS MUNICIPALES.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Territorio y Desarrollo Económnico y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO**.- Aprobar inicialmente la modificación puntual del REGLAMENTO REGULADOR DE LA AUTORIZACIÓN DE USO DE HUERTAS MUNICIPALES.

**SEGUNDO**.- Someter el presente acuerdo a información pública por plazo de 30 días hábiles, mediante anuncios en el Boletín Oficial de la Provincia, en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento y en su sitio web para que los interesados puedan formular reclamaciones, reparos u observaciones. En caso de no presentarse reclamaciones, reparos, ni observaciones, el acuerdo inicial se entenderá elevado automáticamente a definitivo.

**TERCERO**.- Facultar a la Alcaldía-Presidencia para que, por Resolución, pueda elevar el acuerdo inicial a definitivo, en el supuesto de que no se presenten reclamaciones ni sugerencias.

## 4.-REPAROS INTERPUESTOS POR SECRETARIA-INTERVENCIÓN (primer trimestre de 2026)

Dado que por la Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento han sido efectuados una serie de Advertencias - Reparos de legalidad a Resoluciones y acuerdos adoptados por la Alcaldía desde el 1 de enero al 31 de marzo de 2026, de conformidad con lo dispuesto en el art. 218 del RDL 2/204 de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, se eleva informe al Pleno para dar cuenta de la Resoluciones adoptadas contrarias a dichos reparos.

A continuación se hace una reseña de las resoluciones y los reparos de los que ha tomado cuenta el Pleno:

*1.- Aprobación de factura sin estar realizados los trabajos de instalación de placas fotovoltaicas en el polideportivo.*

ESKU3103c782-cd37-49fd-9848-d4449767e901

*2.-Aprobación de factura sin estar prestado el servicio de redacción del proyecto básico de musika eskola.*
*3.-REPARO1/2026, se han abonado 140 euros sin factura por servicios de buzoneo de el folleto informativo de las bonificaciones*
*4.-REPARO 2/2026, 63,35 euros se ha abonado en contra del principio de "servicio realizado" y 140 euros sin presentación de factura.*

El Pleno, con la asistencia de 11 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

**5.- INFORMACIÓN FINANCIERA Y ECONÓMICA DEL PRIMER TRIMESTRE DE 2026 (art. 64 de la N.F. 21/2003 de Presupuestos de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa)**

En cumplimiento de lo previsto en el art. 64 de la N.F. 21/2003 de Presupuestos de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se da cuenta al Pleno de la información financiera y presupuestaria correspondiente al primer trimestre de 2026.

El Pleno, con la asistencia de 11 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

**6.- INFORME TRIMESTRAL SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS PREVISTOS PARA EL PAGO DE LAS OBLIGACIONES DE ESTE AYUNTAMIENTO ( art. 4 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de noviembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.)**

En cumplimiento con lo dispuesto en el artículo 4 y 5 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, se da cuenta a la Corporación en Pleno del informe trimestral emitido desde tesorería en relación al Ayuntamiento sobre el cumplimiento de los plazos para el primer trimestre de 2026.

El Pleno, con la asistencia de 11 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

**7.- PROPUESTA DE BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS.**

Dada cuenta del expediente tramitado para la aprobación de la baja de derechos pendientes de cobro de ejercicios anteriores por prescripción, declaración de créditos incobrables, improcedencia, duplicidad y otras causas

ESKU3103c782-cd37-49fd-9848-d4449767e901

Con base a cuanto antecede y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda, el Pleno, con el voto favorable de todos los concejales presentes, ACUERDA:

**PRIMERO.-** Aprobar los expedientes colectivos de baja de derechos pendientes de cobro por los conceptos, sujetos pasivos e importes contenidos en las siguientes tablas y que a continuación se relacionan:

- Baja de derechos pendientes de cobro **por prescripción**: 4.402,89 €.

| 26/01/01etik 26/03/31ra BITARTEAN AURREKONTUEI APLIKATUTAKO UDAL ZERGEN BAJAK | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **IFZ** | **KONTZEPTUA** | **URTEA** | **LIKIDAZIOA** | **KUOTA** | **ERREKARGOA** | **GUZTIRA** | **ZERGATIA** |
| B43687375 | JARDUERA ENPR | 2021 | 31A0301322304 | 527,22 | 105,44 | 632,66 | 4G-BAJ.PRESCR.GEA |
| U95796090 | JARDUERA ENPR | 2021 | 31A044273130Y | 171,66 | 34,33 | 205,99 | 4G-BAJ.PRESCR.GEA |
| B75187377 | JARDUERA ENPR | 2021 | 31A048512230F | 211,02 | 42,2 | 253,22 | 4G-BAJ.PRESCR.GEA |
| B75097030 | JARDUERA ENPR | 2021 | 31A041940730D | 2759,19 | 551,83 | 3311,02 | 4G-BAJ.PRESCR.GEA |
| **GUZTIRA** | | | | **3.669,09** | **733,80** | **4.402,89** | |

**SEGUNDO.-** Dar traslado del presente acuerdo a los servicios económicos municipales de Intervención y Tesorería para que se proceda a dar de baja en las cuentas contables y de recaudación las deudas declaradas prescritas o anuladas por otras causas.

## 8.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DE LAS CUENTAS GENERALES DEL EJERCICIO 2025.

En cumplimiento del artículo 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la Comisión Especial de Cuentas procedió al examen de las Cuentas y Estados contables del ejercicio 2025, integrada por las cuentas anuales y estados contables de la propia Corporación, junto con los documentos correspondientes que las justifican, así como las liquidaciones del Presupuesto del Ayuntamiento.

En sesión de fecha 16 de abril de 2026 la Comisión Especial de Cuentas dictaminó favorablemente la aprobación de las citadas cuentas.

Mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 22 de abril de 2026 , fueron sometidas a información pública por término de quince días, sin que durante dicho plazo se interpusiese alegación a reclamación alguna.

ESKU3103c782-cd37-49fd-9848-d4449767e901

Con base a cuanto antecede, y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda, el Pleno, con la abstención de los cuatro concejales de EAJ/PNV y el voto a favor del resto de los corporativos , ACUERDA:

“Aprobar definitivamente el expediente relativo a las cuentas generales del Ayuntamiento correspondientes al ejercicio 2025, tras su aprobación inicial en la Comisión Especial de Cuentas celebrada en fecha 16 de abril de 2026 y tras haber transcurrido el plazo establecido de información pública desde su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 22 de abril de 2026, sin que se haya producido reclamación ni observación alguna contra el expediente inicialmente aprobado.”

## 9.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DE MODIFICACIÓN DE CREDITOS . EXPEDIENTE 2026-KALD-000008 . (modalidad créditos adicionales).

Se da cuenta del informe emitido por la secretaria-interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.

Visto el informe emitido desde secretaría intervención, se somete a votación la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda.

El Pleno, con el voto a favor de todos los corporativos presentes, ACUERDA:

**Primero.-** Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante Créditos Adicionales, nº 2026-KALD-000008 que afecta al Presupuesto de este AYUNTAMIENTO del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y siguiente resumen por Capítulos:

| Partida de gastos | Concepto | Créditos | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Actuales | Modificación | Definitivos |
| 1 0400.421.335.10.01 2026 | APORTACIÓN: LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA | 60.070,02 | 16.833,65 | 76.903,67 |
| 1 0100.601.454.00.03 2026 | INVERSIONES: ELIZATEAK | 10.000,00 | 20.000,00 | 30.000,00 |
| 1 0300.623.342.30.02 2026 | INSTALACIONES: PISCINA | 0,00 | 4.455,00 | 4.455,00 |
| 1 0300.601.342.40.01 2026 | PARQUE DE AGUA | 0,00 | 20.000,00 | 20.000,00 |
| 1 0100.622.153.20.01 2026 | CUBIERTA DE LA PLAZA DE SANTA MARINA | 0,00 | 40.000,00 | 40.000,00 |

ESKU3103c782-cd37-49fd-9848-d4449767e901

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1 0400.625.333.00.99 2026 | OTRAS HERRAMIENTAS: EQUIPAMIENTOS DE CULTURA | 0,00 | 45.000,00 | 45.000,00 |
| | | | | |
| **TOTAL** | | 70.070,02 | 146.288,65 | 216.358,67 |

| Cod. | Partida | Concepto | Cantidad |
|---|---|---|---|
| a | 2 0200.870.000.00.01 2026 | REMANENTE DE TESORERÍA: GASTOS GENERALES | 146.288,65 |
| | | | |
| **FINANCIACIÓN EN TOTAL** | | | **146.288,65** |

**DESCRIPCIÓN DE LOS CÓDIGOS**

a) Remanente de tesorería para gastos generales.
b) Remanente de tesorería para gastos con financiación vinculada.
c) Nuevos o mayores ingresos.
d) Baja por anulación de créditos.
e) Operaciones de crédito.

**Segundo.-** Que los anteriores acuerdos se sometan a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones devendrán definitivos, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto General.

INTERVENCIONES HABIDAS:

- Josu Ezkurdia: Nosotros en principio estamos de acuerdo con los proyectos, pero hicimos una propuesta para dar un paso más, y es que se estudie la posibilidad técnica de que junto con los chorros de agua se pueda acometer la sustitución de la actual piscina por otra de mejores características. Y en relación al proyecto de cubrición del parque de Santa Ana, atendiendo al cambio climático, proponemos se analicen determinadas medidas , como medidas de protección climática u otras.No se si hay intención de abordar esas actuaciones o no.

Mikel Luengo manifiesta que se va a empezar a trabajar con un proyecto sobre el cambio climático y que es intención invitar a un representante de EAJ/PNV para que participe en las reuniones. Josu Ezkurdia muestra total disponibilidad para participar y hacer aportaciones.

ESKU3103c782-cd37-49fd-9848-d4449767e901

En cuanto a la propuesta de abordar una nueva piscina exterior, por parte del Alcalde y de Mikel Luengo se hace saber que cualquier actuación que se lleve a cabo en esa zona, incluída la de los chorros de agua, exige un análisis técnico previo motivado por las perforaciones de que se hicieron en esa zona para instalar el sistema de geotermia

**<u>10.- MOCIÓN PRESENTADA POR EHBILDU -ESKORIATZA: "MOCIÓN A FAVOR DE PERMITIR LA REALIZACIÓN DE LAS PRUEBAS DE BACHILLERATO 2026 EN LENGUA VASCA".</u>**

El Pleno, por unanimidad, ACUERDA aprobar la moción cuyo texto se transcribe a continuación:

Visto el artículo 121-3 del Código frances de Educación, que reconoce el lugar de las denominadas lenguas "regionales" en los exámenes y concursos,

Vista la circular de diciembre de 2021 relativa a la promoción y valorización de las denominadas lenguas "regionales" en el sistema educativo, que prevé que en el «Bachillerato algunas pruebas pueden presentarse en lengua regional»,

Considerando que, desde 2012, los alumnos que siguen una enseñanza en lengua vasca podían, hasta la reforma de 2019, realizar algunas pruebas del bachillerato, en particular en matemáticas y en historia-geografía, en dicha lengua,

Considerando que la orden publicada en junio de 2025 relativa a las modalidades de la prueba anticipada de matemáticas no precisa la lengua de realización, dejando así subsistente una práctica establecida,

Considerando que los alumnos afectados se preparan desde el inicio del curso escolar 2025-2026 para realizar esta prueba en lengua vasca, en continuidad con los años anteriores, y sin que se les haya notificado ninguna oposición hasta la fecha,

Considerando que esta preparación se basa en un principio de confianza y de continuidad del servicio público de la Educación,

Considerando que el anuncio tardío de una prohibición de realizar la prueba en lengua vasca para la prueba anticipada de matemáticas de junio de 2026 constituye una ruptura brusca e injustificada,

Considerando que esta decisión pone en dificultad a más de un centenar de estudiantes de secundaria y crea una situación de inseguridad pedagógica con consecuencias para el futuro de estos jóvenes,

Considerando que el Ministro frances de Educación Nacional ha anunciado una concertación destinada a garantizar el lugar de las lenguas "regionales" en el bachillerato de cara a 2027, y que la prueba anticipada de 2026 se inscribe precisamente en este calendario,

ESKU3103c782-cd37-49fd-9848-d4449767e901

Considerando que la continuación de la experimentación iniciada en 2012 constituye una solución simple, pragmática y respetuosa tanto con los alumnos como con los compromisos del Estado Frances,

Considerando que la posibilidad de presentar pruebas en lengua vasca es una demanda apoyada por el conjunto de las tres redes educativas bilingües e inmersivas (pública, privada y Seaska), y que esta demanda es respaldada unánimemente por los parlamentarios y los representantes institucionales de Iparralde,

EL ayuntamiento de ESKORIATZA:

**1-** Expresa su pleno apoyo a los alumnos, a las familias y a los equipos educativos comprometidos con la enseñanza en lengua vasca en todas sus formas;

**2-** Solicita al Rector de la academia de Burdeos que mantenga, de forma transitoria, la posibilidad de realizar en lengua vasca, en continuidad con la experimentación vigente desde 2012, la prueba de Matemáticas para los alumnos de Primero de Bachillerato;

**3-** Insta al Ministro frances de Educación Nacional a garantizar sin demora la consideración efectiva de las lenguas “regionales” en las pruebas del bachillerato de junio de 2026, en particular en la prueba anticipada de matemáticas para los alumnos de Primero de Bachillerato y en la prueba del Gran Oral para los alumnos de Segundo de Bachillerato;

**4-** Recuerda que los discursos a favor de las lenguas “regionales” deben traducirse en actos concretos y coherentes;

**5-** Afirma su apego a la lengua vasca, patrimonio vivo de nuestro territorio.

## 11.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se producen

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:14 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**



EKS | CSV: ESKU3103c782-cd37-49fd-9848-d4449767e901
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=03410
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=03410

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2026IAKU0004-Osoko bilkurako akta ELE2/Acta del Pleno ELE2 (ESKORIATZAKO UDALA |
|---|---|

**Digitalki sinatua:**

**MIREN EDURNE ITURBE LASCURAIN**
**Idazkari-kontuhartzailea**
**Data:** 2026/06/17 18:45:06

**Digitalki sinatua:**

**EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA**
**Alkatea**
**Data:** 2026/06/17 20:00:18